

BERMEO / Oporretan irakurtzeko proposamena egin dute

Liburutegiak ' Aste Santurako irakur-gida ' argitaratu du literatur eta gida-liburuekin

E. Goienetxea

Batzuk dagoeneko oporraldia dute egunotan, eta beste batzuk eguenetik aurrera. Denbora libre gehiago esan gura du horrek. Tarte horretan egiteko gauzen zerrendan, aukeretako bat irakurtzea izan daiteke.

Udal liburutegikoek proposamen hori egin diete herritarrei, eta Aste Santurako irakur-gida argitaratu dute: zortzi narrazio libururen eta bidaietarako hainbat gida-libururen izenburuak jaso dituzte bertan. Etxeko buzoietan banatu dute gida.

Irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz kaleratu dute liburuen zerrenda, eta urteko sasoi honetan jende askok bidaia egiteko aprobetxatzen duela ikusita, biak batu dituzte.

Izan ere, liburu guztiek dute zerikusia bidaien gaiarekin: bizikleta gainean egindako ibilaldiak, Santiago Bideko erromesenak, hainbat bidaiariri egindako elkarrizketak, Nepal aldean izpiritualtasunaren bila dabilenaren istorioa, Afrikako kulturak...

Etxetik mugitzeko aukerarik ez duenak ere bidaia egiteko lagungarri izan